

## Beste Iragarki Ofizial Batzuk

### HERRIZAINGO SAILA

IRAGARKIA, José Ramón Iturria Urtizberea jaunak eskatuta hasi den 406/04 erreferentzia-zenbakiko espedientearen berari egindako errekerimendua jakinarazteko dena. Errekerimendu hori Norberaren Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legean azaltzen diren eskubideak betearazteari buruzkoa da. 8925

IRAGARKIA, Jesús Javier Lana Zabala jaunak eskatuta hasi den 405/04 erreferentzia-zenbakiko espedientearen berari egindako errekerimendua jakinarazteko dena. Errekerimendu hori Norberaren Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legean azaltzen diren eskubideak betearazteari buruzkoa da. 8926

### INDUSTRIA, MERKATRITZA ETA TURISMO SAILA

IRAGARKIA, Bizkaiko Lurralde Bulegoko Buru José Andrés Blasco Altunak Senoreu, S.L.ri hasitako zehapen-espedientearen 2004ko martxoaren 12aren jakinarazpena eta ordainketa-informazioari buruzkoa. 8926

### NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

IRAGARKIA, Arrantza zuzendariak behean aipatutako zigor-espedientearen inguruan egindako Ebazpena jakinaraztekoa. Itsas-arrantzari buruzko martxoaren 13ko 6/1998 Legearen ustezko urratzeagatik ireki zen espediente hori. 8928

## Xedapen Orokorrak

### HERRIZAINGO SAILA

#### Zk-2396

71/2004 Dekretua, apirilaren 27koa, Ertzaintzako langileei aplikatu dakiekeen kondekorazio- eta sari-erregimenari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoaren Araudiak polizia-funtzionarioak zerbitzu-egintzan minusbaliatu geratu edo hiltzekotan sortuko liratekeen ondorioak arautu zituen; araudi hori, hasieran, Segurtasun Batzordeak 1982ko ekainaren 15ean hartutako

## Otros Anuncios Oficiales

### DEPARTAMENTO DE INTERIOR

ANUNCIO por el que se notifica el requerimiento realizado a D. José Ramón Iturria Urtizberea en el Expediente con número de referencia 406/04 incoado a su instancia sobre el ejercicio de derechos contenidos en la Ley 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal. 8925

ANUNCIO por el que se notifica el requerimiento realizado a D. Jesús Javier Lana Zabala en el Expediente con número de referencia 405/04 incoado a su instancia sobre el ejercicio de derechos contenidos en la Ley 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal. 8926

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

ANUNCIO por el que se notifica a Senoreu, S.L. la Notificación e Información de Pago de expediente sancionador dictada el 12 de marzo de 2004 por el Jefe de la Oficina Territorial de Bizkaia D. José Andrés Blasco Altuna. 8926

### DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

ANUNCIO por el que se notifica la Resolución del Director de Pesca, del expediente sancionador abajo indicado, en relación a infracción a la Ley 6/1998, de 13 de marzo, de pesca marítima. 8928

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE INTERIOR

#### Nº-2396

DECRETO 71/2004, de 27 de abril, sobre el régimen de condecoraciones y distinciones aplicable al personal de la Ertzaintza.

El Reglamento del Cuerpo de Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por acuerdo de la Junta de Seguridad de 15 de junio de 1982 y derogado mediante Decreto 388/1998, de 22 de diciembre, por el que se aprueba el reglamento de provisión

erabakiaren bidez onartu zen, eta, gerora, abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuak indargabetu zuen, horren birtatez onetsi baitzen Euskal Herriko Polizia Kidegoetako Funtzionarioen Lanpostuen Hornidurari buruzko Araudia.

Geroago, Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak zerbitzu-egintzaren definizioa ezarri zuen 79. eta 80. artikuluetan, eta, aldi berean, Jaurlaritzari eskatu zion, zerbitzu-egintzaren aitorpena eginez gero, horrek izango lituzkeen ondorioak zehazteko. Horixe da, hain zuzen ere, neurri batean behintzat, dekretu honetan garatu nahi den arloa, premiak eta beharrak bultzatuta (aldeko ebazpen askoren eragin-kortasuna geroratu behar izan baita, izendapenaren ondorioak zehaztu gabe zeudelako), bere aplikazio-eremu subjektiboa Ertzaintzako langileen arloa mugatu behar izan du eta. Gerorako utzi da, beraz, erregimen bateratua ezartzea, eta espero dugu, luze baino lehen, Udaltzaingoetako funtzionarioak ere horren barruan egotea.

Bestalde, ordainsari- eta haborokin-erregimentzat jo litekeen esparruaren barruan, otsailaren 25eko 44/1986 Dekretuak ertzain-lanagatik eskerrona aitortzeko Domina sortu zuen, ertzainek herritarren eskubideak eta askatasunak babesten eta herritarren ordena eta segurtasuna bermatzen egindako aparteko zerbitzuak saritzeko asmoz. Prozeduraren ikuspuntutik, araua Herrizaingo sailburuaren 1986ko otsailaren 27ko Aginduaren bidez garatu zen. Gero, azaroaren 18ko 263/1986 Dekretuaren bidez, domina-erregimenaren aplikazio-eremu subjektiboa Ertzaintzako funtzionarioak ez ziren langileen arloa hedatu zen.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 79. artikulua ezarritako zerbitzu-egintzaren definizio zehatza izanda, beharrezkotzat jotzen da aipatutako 44/1986 Dekretuak ezarritako kondekorazio eta sarien erregimena kontzeptuen aldetik eguneratu eta mugatzea, legeko araudi horrekin elkar-tu eta bateratzeko asmoz. Halaber, Legearen 80.2 artikuluan bildutako agindua bete beharko da. Beraz, arauak erakundeek Ertzaintzako funtzionarioek gauzatutako aparteko zerbitzuei ematen dizkieten erantzun mekanismoak ezarri nahi ditu modu bateragarri eta ulergarrian, zerbitzu-egintzaren deklarazioari atxikitako ondorio ekonomikoak eta administratiboak zein lanbide-jarduera osoan polizi egitekoa burutu izanaren aintzatespena arautuz. Horrek guztiak, beraz, polizia-lanarengatik domina sortu eta arautu zuten arauak indargabetu beharra dakar.

Ondorioz, Ertzaintza Kontseiluak txostena eman eta Aholku Batzorde Juridikoaren hitzak entzundakoan, Herrizaingo sailburuak halaxe proposatuta, Jaurlaritzako Kontseiluak 2004ko apirilaren 27an egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, hauxe:

de puestos de trabajo de los funcionarios de los Cuerpos de Policía del País Vasco, reguló los efectos de los supuestos de invalidez o fallecimiento de los funcionarios policiales en acto de servicio.

Con posterioridad, la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, en sus artículos 79 y 80, establece la definición del acto de servicio, a la vez que encomienda al Gobierno la determinación de los efectos de su declaración, previsión ésta que se desarrolla con el presente Decreto que, por razones de urgencia y necesidad -ya es considerable el número de resoluciones favorables cuya eficacia ha quedado postergada por la ausencia de tal determinación-, limita su ámbito subjetivo de aplicación al personal de la Ertzaintza, posponiéndose a un futuro, que se quiere no muy lejano, el establecimiento de un régimen unitario que se proyecte igualmente a los funcionarios de la Policía Local.

Por otro lado, dentro de lo que se puede denominar como régimen de recompensas y gratificaciones, el Decreto 44/1986, de 25 de febrero, creó la Medalla al reconocimiento de la labor policial con el objeto de premiar los servicios extraordinarios de los miembros de la Ertzaintza en favor de la protección del libre ejercicio de los derechos y libertades y de la garantía del orden y la seguridad ciudadana. Dicha norma fue desarrollada, desde un punto de vista procedimental, por Orden del Consejero de Interior de 27 de febrero de 1986. Con posterioridad, mediante Decreto 263/1986, de 18 de noviembre, se procedió a ampliar el ámbito subjetivo de aplicación del régimen de la medalla a personal que no ostentase la condición de funcionario de la Ertzaintza.

Con la definición precisa del acto de servicio que establece el artículo 79 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, se hace de todo punto necesario actualizar y delimitar conceptualmente el régimen de condecoraciones y distinciones establecido por el mencionado Decreto 44/1986, al objeto de armonizarlo y cohesionarlo con la citada regulación legal, así como cumplir con el mandato recogido en el artículo 80.2 de la Ley. La presente norma viene, por tanto, a establecer de forma unitaria y omnicomprensiva los mecanismos de respuesta institucional a los servicios extraordinarios prestados por los funcionarios de la Ertzaintza mediante la regulación tanto de los efectos económicos y administrativos inherentes a la declaración de acto de servicio como del reconocimiento del ejercicio de la función policial durante toda una trayectoria profesional, todo lo cual implica la necesaria derogación de las normas que crearon y regularon la medalla al reconocimiento de la labor policial.

En su virtud, habiendo emitido informe el Consejo de la Ertzaintza, oída la Comisión Jurídica Asesora, a propuesta del Consejero de Interior, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 27 de abril de 2004,

## XEDATU DUT:

**1. artikulua.**— Xedea.

1.— Ertzaintzako funtzionarioei dagokienez, zerbitzu-egintzaren deklarazioak (Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen III. titulua-ren V. kapituluaren jasotakoak) dakartzan ondorioak arautzea, eta funtzionario horiek beren lanbide-jardueran polizi egitekoa burutu izana aintzatesteko modua zehaztea, horietarako dira arau honen xedea.

2.— Ertzaintzako funtzionarioek hurrengo kondecorazioak eta sariak jaso ahal izango dituzte:

- a) Polizia-lanarengatik domina.
- b) Polizia-zerbitzuarengatik diploma.
- c) Zorion-hitzak.
- d) Ertzaintzarekiko ohorezko harremana.

**2. artikulua.**— Polizia-lanarengatik domina.

1.— Polizia-lanarengatik domina sortu da, Ertzaintzako funtzionarioek pertsonak eta ondasunak babestu, haien eskubideak eta askatasunak bermatu eta herritarren segurtasuna zaintzeko lanean gauzatutako aparteko zerbitzuak saritzeko, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartutako eskumenen esparruan eta antolamendu juridiko orokorrean ezarritakoaren arabera.

2.— Polizia-lanarengatik domina hurrengo kasuetan emango da:

a) Hilondoko aitorten modura, berariaz funtzionario jakin horri zuzenduta, baldin eta funtzionarioa, zerbitzuan edo bere funtzioak betetzen ari zela, istripuz edo beste modu bortitz batean hil bada. Horrela izatekotan, zerbitzu-egintzat joko da, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 79. artikulua-ren bigarren idatz-zatian zehaztutakoaren arabera.

b) Berariaz funtzionario jakin horri zuzenduta, zerbitzu-egintzat jotzea merezi duen polizia-jarduera gauzatuz gero, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 79. artikulua-ren lehenengo idatz-zatian zehaztutakoaren arabera.

3.— Zerbitzu-egintzaren deklarazioa egitearekin batera, polizia-lanarengatik domina emango da, deklarazio horren ezinbesteko ondorio gisa.

**3. artikulua.**— Zerbitzu-egintzan hildakoan, polizia-lanarengatik domina emateak dakartzan ondorio ekonomikoak.

1.— Aurreko artikulua-ren bigarren paragrafoko b) idatz-zatian aipatutako kasuetan, polizia-lanarengatik domina emateak berekin ekarriko du hildako funtzionarioari zegokion bi urteko ordainsari oso jasotzeko eskubidea. Eskubide horren onuradunak izango dira ondoren adierazten diren pertsonak, aipatutako ordena

## DISPONGO:

**Artículo 1.**— Objeto.

1.— Es objeto de la presente norma la regulación de los efectos de la declaración de acto de servicio contemplada en el Capítulo V del Título III de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, respecto de los funcionarios de la Ertzaintza; así como el reconocimiento del ejercicio por éstos de la función policial durante su trayectoria profesional.

2.— Los funcionarios de la Ertzaintza podrán ser distinguidos con las siguientes condecoraciones y distinciones:

- a) Medalla al reconocimiento de la labor policial.
- b) Diploma al servicio policial.
- c) Felicitación.
- d) Vinculación honorífica a la Ertzaintza.

**Artículo 2.**— Medalla al reconocimiento de la labor policial.

1.— Se crea la Medalla al reconocimiento de la labor policial para premiar los servicios extraordinarios de los funcionarios de la Ertzaintza en su misión de proteger a las personas y bienes, garantizar el libre ejercicio de sus derechos y libertades y velar por la seguridad ciudadana, en el marco de las competencias asumidas por la Comunidad Autónoma del País Vasco y de conformidad con lo previsto en el ordenamiento jurídico general.

2.— La Medalla al reconocimiento de la labor policial se otorgará:

a) Con carácter individual y a título póstumo, en los supuestos de muerte en accidente, o cualquier otra muerte violenta de un funcionario, siempre que sea durante la realización del servicio o en el ejercicio de sus funciones, que tendrá la consideración de acto de servicio conforme a lo determinado por el apartado segundo del artículo 79 de la Ley de Policía del País Vasco.

b) Con carácter individual, a los funcionarios que lleven a cabo una actuación policial merecedora de la calificación de acto de servicio conforme a lo determinado por el apartado primero del artículo 79 de la Ley de Policía del País Vasco.

3.— La concesión de la Medalla al reconocimiento de la labor policial se hará conjuntamente con la declaración de acto de servicio y como consecuencia inescindible de esta declaración.

**Artículo 3.**— Efectos económicos inherentes a la concesión de la Medalla al reconocimiento de la labor policial por fallecimiento en acto de servicio.

1.— La concesión de la Medalla al reconocimiento de la labor policial en los supuestos a los que se refiere la letra a) del apartado segundo del artículo anterior llevará aparejado el derecho a la percepción de una cantidad equivalente a dos anualidades de las retribuciones íntegras correspondientes al funcionario fallecido. Se-

preklusiboari jarraiki, behin baino ez dutela kopurua jasoko:

a) Ezkontide biziraulea, edo hala denean, bikoteki-de biziraulea, Eusko Legebiltzarraren izatezko bikoteak arautzeari buruzko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarri bezala.

b) Legezko jaraunsleak.

2.- Aurreko paragrafoan aipatutako ordainsariak funtzionarioak bere lanpostuan, hiltzeko orduan, edozein moduren bidez jasotzen zituen ordainsari oinarrikoak eta osagarriak, finkoak eta aldizkakoak izango dira.

**4. artikulua.**— Zerbitzu-egintzatik ondorioztatutako ezintasunagatik nahitaezko erretiroa hartzeagatik polizia-lanarengatik domina emateari atxikitako ondorio ekonomikoak.

1.— Polizia-lanarengatik domina emateak, 2. artikuluen bigarren paragrafoko b) idatz-zatian aipatutako kasuetan, aldizkako sari ekonomikoa jasotzeko eskubidea sortuko dio polizia-jardueratik zuzenean ondorioztatutako ezintasunagatik nahitaezko erretiroa hartzeagatik zerbitzu-erlazioa uzten duen funtzionarioari. Sari ekonomiko hori eta sartuta dagoen gizarte-aurreikuspeneko sistemaren arabera funtzionarioari dagokion ohiko edo aparteko pentsioa batuz, aipatutako polizia-jarduera gertatu zen unean funtzionarioak zeukan lanpostuaren ordainsarien ehuneko laurogeia lortu behar du, hala denean.

2.— Aurreko paragrafoan aipatutako ordainsariak funtzionarioak bere lanpostuan, nahitaezko erretiroa ekarri duen polizia-jardueraren unean, edozein moduren bidez jasotzen zituen ordainsari oinarrikoak eta osagarriak, finkoak eta aldizkakoak izango dira.

3.— Aurreko lehenengo paragrafoan aipatutako sari ekonomikoa hilero ordainduko da, eta legez ezarritako adina betetzeagatik nahitaezko erretiroa hartu behar den egunera arte iraungo du.

4.— Sari ekonomikoa jasotzea ez da bateragarria izango lan-errentak jasotzearekin, lan-errentak artikuluko honen lehenengo paragrafoan ezarritako mugatik gorakoak direnean.

5.— Artikulu honek aipatutako sari ekonomikoak aurretik aipatutako ordainsari finko eta aldizkakoei aplikatu beharreko urteko gehikuntza bera izango du, eta hori kobratu ahal izateko, interesatuek horiek jasotzeko eskubidea aintzatetsi duten egoerek jarraitzen dutela behar bezala egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute, urtearen lehenengo hilean. Dena den, Administrazioak artikuluko honetan ezarritako erregimena aplikatzeko behar diren neurriak ebatzi ahal

rán beneficiarios de tal derecho, por una sola vez, los que a continuación se indican y en el orden preclusivo en que se nominan:

a) el cónyuge supérstite o, en su caso, la pareja supérstite en los términos contemplados en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho.

b) los herederos legales.

2.— Las retribuciones a las que se refiere el apartado precedente serán las básicas y complementarias, fijas y periódicas que percibiera el funcionario en el puesto de trabajo que ocupaba a través de cualquier forma de provisión en el momento de su fallecimiento.

**Artículo 4.**— Efectos económicos inherentes a la concesión de la Medalla al reconocimiento de la labor policial por jubilación forzosa por incapacidad derivada de acto de servicio.

1.— La concesión de la medalla al reconocimiento de la labor policial en los supuestos a los que se refiere la letra b) del apartado segundo del artículo 2 generará a favor del funcionario que cese en su relación de servicio por jubilación forzosa por incapacidad directamente derivada de la actuación policial, el derecho al percibo de una prestación económica periódica que, sumada a la pensión, ordinaria o extraordinaria, que le correspondiera, conforme al sistema de previsión social en el que esté incluido, alcance, en su caso, el ochenta por ciento de las retribuciones del puesto de trabajo que ocupaba en el momento en que tuvo lugar la referida actuación policial.

2.— Las retribuciones a las que se refiere el apartado precedente serán las básicas y complementarias, fijas y periódicas que percibiera el funcionario en el puesto de trabajo que ocupaba a través de cualquier forma de provisión en el momento de la actuación policial determinante de su jubilación forzosa.

3.— La prestación económica, a que se refiere el apartado uno anterior, se abonará mensualmente y subsistirá hasta la fecha en la que hubiera debido ser declarada la jubilación forzosa del afectado por cumplimiento de la edad legalmente prevista.

4.— La percepción de la prestación económica será incompatible con la percepción de rentas de trabajo cuando éstas superen el límite establecido en el apartado uno del presente artículo.

5.— La prestación económica a la que se refiere el presente artículo experimentará idéntico incremento anual al que resulte de aplicación a las mencionadas retribuciones fijas y periódicas, y para proceder a su abono los interesados vendrán obligados a presentar, durante el primer mes del año, la documentación que de manera suficiente acredite el mantenimiento de las situaciones que han generado el reconocimiento del derecho a su percibo. En todo caso, la Administración podrá, de ofi-

izango ditu bere kabuz, baldin lehen aipatutako egoe-  
rak nolabait aldatu direla jakiten badu.

6.– Artikulu honen aurreko paragrafoan ezarritakoa-  
ren kalterik gabe, pentsioak, soldata pasiboak eta lan-  
errentak eta aintzatetsitako sari ekonomikoa batzetik  
ondorioztatutako kopurua ezin izango da inoiz gizar-  
te-aurreikuspeneko erregimen publikoan ezarritako  
gehieneko pentsiotik gorakoa izan.

5. *artikulua* – Ertzaintzarekiko ohorezko harrema-  
na.

Zerbitzu-egintzatik ondorioztatutako ezintasuna  
dela-eta nahitaezko erretiroa hartzeagatik zerbitzu-er-  
lazioa uzten duten Ertzaintzako funtzionarioek harre-  
man berezia mantenduko dute Ertzaintzarekin, haiek  
hala eskatuz gero. Horrela bada, azkenekoz jardun zu-  
ten Unitateari atxikiko zaizkio ohorezko mailan, eta,  
ondorioz, unitate horrek parte hartuko duen erakun-  
deen ekitaldi eta ospakizunetara joan ahal izango dira.  
Herrizaingo sailburuak emango du ohorezko kide izae-  
ra hori, bere Aginduen bidez.

6. *artikulua* – Polizia-zerbitzuarengatik diploma.

1.– Polizia-zerbitzuarengatik diplomaren helburua  
honako hau da: lanbide-jarduera osoan polizi egitekoa  
burutu izana aintzatestea Ertzaintzako funtzionarioei.

2.– Polizia-zerbitzuarengatik diplomak bi maila di-  
tu:

a) Ezaugarri gorridun diploma: Ertzaintzaren zerbi-  
tzura hogeita hamar urte eman dituztenentzat.

b) Ezaugarri zuridun diploma: Ertzaintzaren zerbi-  
tzura hogeitaz hamar urte eman dituztenentzat.

3.– Polizia-zerbitzuarengatik diploma jasotzeko  
beste merezimendu izateko, nahitaezkoa izango da zi-  
gor edo zehapenik ez izatea espediente pertsonalean.  
Horrenbestez, ez zaie diplomarik emango diziplinazko  
hutsegiteagatik zigorra izan duten funtzionarioei, eza-  
rritako zigorra kentzen ez zaien bitartean. Halaber, ez  
zaie diplomarik emango zehapen-prozeduraren batean  
sartuta daudenei, prozedura horiek ebazten ez diren bi-  
tartean.

4.– Polizia-zerbitzuarengatik diploma emateko on-  
doreetarako, maila edozein dela ere, bete-beteko zerbi-  
tutzat hartuko da, baldin eta ertzaina honako admini-  
strazio-egoeretakoren batean egon bada: jarduneko  
zerbitzuan, eta bigarren jardueran lantoki eta zerbitzu  
berezietan; azken egoera hori, poliziaren funtzio publi-  
koarekin lotura duten jarduerak burutu baditu.

7. *artikulua* – Zorion-hitzak.

1.– Ertzainek zorionak jaso ditzakete, txalotzeko  
moduko ekintzengatik esker ona adierazi behar zaizkie-  
nean, baldin eta dominak emateko betekizunak bete-  
tzen ez badira.

cio, disponer las medidas necesarias para la aplicación  
del régimen previsto en el presente artículo si tiene  
constancia de una modificación de las situaciones a que  
se ha hecho referencia anteriormente.

6.– Sin perjuicio de lo establecido en los apartados  
anteriores de este artículo, la cantidad que resulte de la  
suma de las pensiones, haberes pasivos y rentas de tra-  
bajo y la prestación económica que se reconoce, en nin-  
gún caso podrá ser superior a la pensión máxima pre-  
vista en el régimen público de previsión social.

*Artículo 5.*– Vinculación honorífica a la Ertzaintza.

Los funcionarios de la Ertzaintza que cesen en su re-  
lación de servicio por jubilación forzosa por incapaci-  
dad derivada de acto de servicio mantendrán, si así lo  
solicitan, una especial vinculación con la Ertzaintza,  
mediante su adscripción con carácter honorífico a la  
Unidad en la que sirvieron su último destino efectivo,  
pudiendo, en consecuencia, asistir a los actos y ceremo-  
nias institucionales en que ésta participe. La condición  
de miembro honorario se otorgará mediante Orden del  
Consejero de Interior.

*Artículo 6.*– Diploma al Servicio Policial.

1.– Se crea el Diploma al Servicio Policial con la fi-  
nalidad de reconocer a los funcionarios de la Ertzaintza  
el ejercicio de su función durante toda su trayectoria  
profesional.

2.– El Diploma al Servicio Policial tendrá dos cate-  
gorías:

a) El Diploma con distintivo rojo, que se concederá al  
cumplir treinta años de servicio efectivo en la Ertzaintza.

b) El Diploma con distintivo blanco, que se conce-  
derá al cumplir los veinte años de servicio efectivo en  
la Ertzaintza.

3.– Para resultar acreedor al Diploma al Servicio Po-  
licial será requisito carecer de sanciones en el expedien-  
te personal, por lo que el mismo no se concederá a aque-  
llos funcionarios que hayan sido sancionados por falta  
disciplinaria mientras no se cancele la sanción impues-  
ta. Tampoco se concederá a quienes estén incurso en  
procedimientos sancionadores en tanto éstos no se re-  
suelvan.

4.– A efectos de la concesión del Diploma al Servi-  
cio Policial, en cualquiera de sus categorías, será servi-  
cio efectivo el prestado en las situaciones administrati-  
vas de servicio activo, segunda actividad con destino y  
servicios especiales, ésta última situación sólo cuando  
se haya declarado para el ejercicio de actividades con-  
exas con la función pública policial.

*Artículo 7.*– Felicitaciones.

1.– Los miembros de la Ertzaintza pueden ser feli-  
citados para reconocer las actuaciones que se conside-  
ren meritorias cuando no concurren los requisitos esta-  
blecidos para el otorgamiento de medallas.

2.– Zorionak banakoei zein taldeei eman ahal zaizkie.

**8. artikulua** – Polizia-zerbitzuarengatiko diploma eta zorion-hitzak bideratzea.

1.– Segurtasun sailburuordeak erabakiko du nori eman Polizia-zerbitzuarengatiko diploma eta zorion-hitzak. Kasuan kasuko ebazpena Ertzaintzaren Aldizkarian agertuko da

2.– Segurtasun Sailburuordetzaren mende dagoen Giza Baliabideen Zuzendaritzak egingo ditu diploma eta zorion-hitzak emateko espedienteen izapideak. Espedienteen honako osagai hauek agertu behar dira:

a) Funtzionarioak, funtzionarioek edo taldeak helburu horretarako betetzen dituzten ezaugarriak.

b) Proposamen-txostena.

**9. artikulua.**– Espediente pertsonala.

1.– Dominak, diplomak eta zorion-hitzak emateko ekintza dagokion egiaztagiriaren bidez dokumentatuko da, eta hori guztia funtzionarioaren espediente pertsonalean idatziko da.

2.– Dominak (2. artikuluko bigarren paragrafoko b) idatz-zatian aurreikusitako kasuan emandakoak), diplomak eta zorion-hitzak merezimendutzat hartuko dira lanpostuak hornitzeko deialdietan eta barne-sustapeneko deialdietan, gai horri buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

#### ALDI BATERAKO XEDAPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Araudia indargabetu ondoren gertatutako polizia-jarduerak edo heriotzak direla eta, dekretu hau indarrean sartu aurretik egindako zerbitzu-egintzei buruzko deklarazioek dekretu honetan ezarritako ondorioak izango dituzte.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik gelditzen dira ondorengoak: ertzain-lanagatiko eskerrona adieraziz emandako domina bera, horren baldintzak eta eskubideak sortu dituen otsailaren 25eko 44/1986 Dekretua eta ertzain-lanagatiko eskerrona adieraziz emandako domina bera, horren baldintzak eta eskubideak sortu dituen otsailaren 25eko 44/1986 Dekretua garatzen duen 1986ko otsailaren 27ko Agindua.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Dekretu hau garatu eta aplikatzeko behar diren beste xedapen emateko eskumena ematen zaio Herrizaingo sailburuari.

2.– Las felicitaciones podrán otorgarse tanto a título individual como colectivo.

**Artículo 8.**– Tramitación del Diploma del Servicio Policial y de las Felicitaciones.

1.– La concesión del Diploma al Servicio Policial y de las Felicitaciones corresponderá al Viceconsejero de Seguridad. La resolución que en cada caso proceda se insertará en el Boletín de la Ertzaintza.

2.– Los expedientes para la concesión del Diploma y de las Felicitaciones se instruirán por la Dirección de Recursos Humanos de la Viceconsejería de Seguridad. En el expediente deberán constar los siguientes extremos:

a) Circunstancias concurrentes en el funcionario, funcionarios o colectivo.

b) Informe-propuesta.

**Artículo 9.**– Expediente personal.

1.– La concesión de las Medallas, Diplomas y Felicitaciones será documentada mediante la correspondiente credencial, que se anotará en el expediente personal del funcionario.

2.– Las Medallas, otorgadas en el supuesto previsto en la letra b) del apartado segundo del artículo 2, los Diplomas y las Felicitaciones serán valoradas como mérito en las convocatorias de provisión de puestos de trabajo y en las convocatorias de promoción interna, de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente sobre la materia.

#### DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Los efectos de las declaraciones de acto de servicio efectuadas antes de la entrada en vigor del presente Decreto por actuaciones policiales o fallecimientos acaecidos con posterioridad a la derogación del Reglamento de la Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco, serán los previstos en el presente Decreto.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados el Decreto 44/1986, de 25 de febrero, por el que se crea la Medalla al reconocimiento de la labor policial, condiciones y derechos de la misma y la Orden de 27 de febrero de 1986, por la que se desarrolla el Decreto 44/1986, de 25 de febrero, de creación de la Medalla al reconocimiento de la labor policial, condiciones y derechos de la misma.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– Se faculta al Consejero de Interior para dictar cuantas disposiciones requiera el desarrollo y la aplicación del presente Decreto.

**Bigarrena.**— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko apirilaren 27an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Herrizaingo sailburua,  
JAVIER BALZA AGUILERA.

## Agintariak eta Langileria

### Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

#### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

##### Zk-2397

78/2004 DEKRETUA, maiatzaren 4koa, Manuel Montero García jaunak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errektore Gorenaren kargua utz dezala xedatzen duena.

Euskal Herriko Unibertsitateko errektore gorenak 2004ko apirilaren 27an Unibertsitateko Idazkaritza Nagusiaren egiaztagiria igorri zuen. Bertan adierazten denez, Juan Ignacio Pérez Iglesias jauna izendatu da Unibertsitateko errektore goren, Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuetako 249. artikuluan eta errektorea hautatzeko araudian ezarritakoari jarraituz. Beraz, Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuen 250. artikuluan ezarritakoari atxikiz, bidezkoa da Manuel Montero García jaunak errektore gorenaren kargua utz dezala xedatzea.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko maiatzaren 4an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra.**— Manuel Montero García jaunak Euskal Herriko Unibertsitateko errektore gorenaren kargua utz dezala xedatzea eta, bide batez, egindako lanegatik eskerrak ematea.

**Segunda.**— El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de abril de 2004.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Interior,  
JAVIER BALZA AGUILERA.

## Autoridades y Personal

### Nombramientos, Situaciones e Incidencias

#### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

##### Nº-2397

DECRETO 78/2004, de 4 de mayo, por el que se declara el cese del Rector Magnífico de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Don Manuel Montero García.

Con fecha 27 de abril de 2004, el Rector Magnífico de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea ha remitido certificación de la Secretaría General de la mencionada Universidad, en la que se hace constar la elección de Don Juan Ignacio Pérez Iglesias como Rector Magnífico, conforme a lo previsto en el artículo 249 de los Estatutos de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, y en el Reglamento de elección de Rector. En consecuencia con lo anterior y con lo dispuesto en el artículo 250 de los Estatutos de la Universidad/Euskal Herriko Unibertsitatea, procede la declaración del cese del Rector Magnífico, Don Manuel Montero García.

En su virtud, y a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 4 de mayo de 2004,

DISPONGO:

**Artículo único.**— Se acuerda la declaración del cese del Rector Magnífico de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Don Manuel Montero García, agradeciéndole los servicios prestados.